

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iñaki Alkiza Laskibar

*Donostia,
Gipuzkoa
(1933)*

Aurkibidea



Biografia



Herrerako Agur etxean jaio zen, Altza herriko parte zenean. Errepublikara garaitzen, eta Iñaki Andoni jarri zioten izena. Aita Alzakoa zuen eta ama, berriz, Villabonakoa. Lehenengo bata, gero bestea, guraso biak hil zitzaizkion 13-14 urterako, eta hiru senideak amonarekin eta osabarekin joan ziren bizitzera, Alzakako Elizalde etxera. Herrerako fraideetan egin zituen lehen ikasketak. Familiako lantegian ibili zen lanean urte askoan, Destileria Guipuzcoanan. Baina batez ere kirolarengatik da ezaguna: Realeko presidentea izan zen hamar urtean (1983-1993), Realak kopa irabazi zuen garaian hain zuzen ere. Jokalari moduan, Eibarren urtebete egin zuen eta Realean bost (1956-1961). Politikan ere ibilia da: 1978an zinegotzia izan zen Donostian, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide 90eko hamarkadan.

Zintak

DON-140

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-03-09
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

DON-141

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2011-03-09
- **Iraupena:** 47 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Gaztetxea zela, umezurtz

- **Erref:** DON-140/004
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:01:56. **Bukatu:** 00:05:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Aitak kamioia zeukan, eta pentsu biltegia. Udan Donostiara joaten zen, lehengusuengana. Izan ere, 14 urterekin geratu zen umezurtz. Amonarekin eta osaba-izebekin joan ziren bizitzera, Altzako Elizalde etxera. Baratzea eta animaliak. Osaben ogibideak.</p>

Transkripzioa

- Ta zure aita zertara dedikatzen zan, zein zan bere ofiziyua?
- Ba, zea, kamioi bat zekan, kamioiya. Bueno, ta pentsua zekaten, almazena bat zekaten pentsuena ganauentzako, basarritarrentzako ta...
- Eta zuena zer zan, etxia baratzakin, baserri modukua...?
- Ez, ez, ez, ez, ez, hemen etxe haundi bat da ta, ez, ez, etxe haundi; ez, ez da, baratzaik gabe.
- Orduan zu kalekua zea?
- Kaletarra. Ustez bai. Zeatik ni askotan donostin bizi izandu naiz. Zeatik nik lehengusuak badakazkit Donostin, eta udaran han egoten nintzan, udara iya gehiyenetan bakaziyoak hartu ta Donostia, zeatik aita hil zan ba... Ama hil zan nik bost-sei urte nakazkila, eta aita nik hamahiru-hamalau urte. "O sea que" ezer gabe gelditu giñan hiru anai.
- Ta orduan ze in zenuten?
- Izebakin jun, izebai... ez, amona ta izebakin, osabakin.
- Aitan?
- Aitan, bai, anaiyakin, aitan anaiyakin.
- Eta Altzara?
- Altzara, bai.
- Altzakua?
- Bai, bai, Altzan.
- Eta baserrira ala kaleko etxera?
- Ez, ez, ez, kaleko etxera.
- Ta nola du izena?
- "Villa Elizalde, Casa Elizalde. Villa" ez jarri, zeatik oain ez da eramaten "villa" ta. Etxia Elizalde.
- Elizalde etxea.
- Bai.
- Eta hor bazuten baratza eta holako...?
- Bai, baiño guk ez genun lanik iten han. Bagenun atzekua hemen, etxia, beste etxia zegon guria ere, bueno, guria, familikua, ta han zegon matrimoniyo bat, zea, ezkondu batzuk, bat zea naparra zan, ta harek iten zigun. Baratza haundiya zan, dana zea, eta erdia harentzako eta beste erdia guretzako.
- Orduan tratua zenuten einda?
- Bai, bai, bai, bai, terreno haundiya zan. Altzako kanposantua ezautzen al dezu?
- Bai.
- Ba tontor hortan. Oain ya hua etxiak in dute ta, baiño etxia han dago e?

Etxia han dago.

- Ta zuek animalirik bazenuten han?
- Ez... Bai! Zeak, nola esango dizut? Zeak...
- Oilluak?
- Oilluak, oilluak eta zea, jesus, nola esaten da "gallos"?
- Oillarra?
- Oillarrakin [...] eta besteena ez.
- Ta zure izeba ta osaba ta zertaz bizi zian? Saldu iten zuten hangua...?
- Ez, ez, ez, ez, osaba lanian portuan, bueno portuan, apoderatua zan portuan osaba. Eta beste osabakin Donostian egoten zana, hua armadoria zan.
- Ta beste osaba're hor etxian bizi zan Altzan?
- Ez, hua donostin. Ta gero udaran honea etortzen zian, ta ni udaran Donostira juten nintzan lehengusuakin ta.

2. Altza nolakoa zen

- **Erref:** DON-140/005
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:05:33. **Bukatu:** 00:07:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Altzako frontoian aritzen zen pilotan eta futbolean, etxe aurrean. Baserri asko zeuden, eta lau etxe. Altza nolakoa zen kontatzen du, itsasotik Urumearaino iristen zela. Herri handia zen.

3. Gerra ondoren, inmigrazioa

- **Erref:** DON-140/006
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:07:32. **Bukatu:** 00:08:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Euskara asko entzuten zen Altzan, baina gerra ondoren etorkin asko joan zen hara bizitzera, eta hizkuntza ere aldatu egin zen: galiziarrek, Extremadurakoak...

Transkripzioa

- Ta garai hartan jendia euskeraz bizi zen?
- Altzan bai, Altzan... Herreran'de bai, baiño gerra denbora ya gerra'de bukatuta, ta jende asko etorri zan, polliki-polliki. Bueno, etorri zian lehenbizi etorri zian ba barkotan Trintxerpea, Trintxerpetik honea etorri zian: ba, hamar o hamabost urtetan etorri zian gailleguak, ta gero azaldu zian extremeñuak. Eta extremeñuak etorri zian nik ez dakit herri

guztietatik handik, baiño hemen hemen Altzan etorri zianak zeakuak zian, aber goatzen naizen, Miajadas, han zen jendia Miajadaskua etorri zan erruz. Nerekin lanian jendia hangua, jende ona gaiña, eta baiño asko etorri zian. Bueno, etorri, etorri, etorri ta hemen gelditu zian, gehiyenak oaindik'e Erreterti ta Altzan ta jende asko dago hangua. Nik uste det in diala hemengo jendiai in dia, hayek in dia, zeatik jendia hemen ezkondu da eta oain hemenguak dia.

4. 400 itsasontzi baino gehiago zeuden

- **Erref:** DON-140/007
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:08:51. **Bukatu:** 00:10:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Lana sobran zegoen portuan, Herrera aldean. 370 ontzi joaten ziren Gran Solera eta bajurakoak ere asko zeuden, 40 bat. Orain, berriz, hamar izango dira. Txintrerperi "dolarren auzoa" esaten zioten.

Transkripzioa

- Eta hemen lana bazegon orduan?
- Bai, bai, bueno, nik esango dizut hemen portuan, Altza bizi zan portuengatik, Altza ta Herrera ta hoi portuengatik. O bien patroiya peskenak o bien barkotan sartuak. Eta nik esango dizut, bueno, nere familiyan denak norbaitek... "o sea" osaba bat zakan barkuak, baiño ordun izango zian hemen zeara juten ziana gora, este, Gran Sola ta hirurehun barko, hirurehun ta hirurogeita hamar barko zian. Hoiek hara juten zian. Gero bajurakuak izango zian beste hogei o berrogei ez dakit izango zien. Eta gero aparte, aparte, zea, este bakaillaokuak, bakaillao pixuak izango zitun hamar o hamabi, ta gero beste berrogei o izango zian. "O sea" zenbat barko zian? Oain zenbat daude? Ez dakit hamar badauden, oain hamar e? Ze diferentziya!
- Eta lana zer zegon...?
- Hemen lana, hor frenten ikusten dezuna, hoi da Trintxerpe, "el barrio del dólar" esaten zitzaiyon "o sea que"...
- Hor dirua errex irabazten zalako, ala?
- Bai, bai, bai, oso. Bueno, errex ez dakit, lan in bihar da, irabazteko lan egin bihar da.

5. Bainuak eta arrantza

- **Erref:** DON-140/009
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:10:46. **Bukatu:** 00:13:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Pasai Donibanen eta San Pedron bainatzen ziren, arroketan. Orain ere hara joaten dira. Donostian Kontxan bainatzen ziren, eta txalupan ere ibiltzen ziren. Arrantza ere egiten zuten. Arrain txikitara joaten ziren, txipiroitara eta. Fusilarekin ere ibilia da, Santa Clara uhartean.

6. Eskola garaia

- **Erref:** DON-140/011
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:14:00. **Bukatu:** 00:17:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Altzan ibili zen eskolan eta gero Herreran, La Salleko fraideekin. Merkataritza ikasi zuen gero. Altzako eskolan Don Jose Maria zen maisua, kanpotarra. Erdaraz, eta bandera espainolarekin.

7. Umetako jolasak; lehengo baloiak

- **Erref:** DON-140/012
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:17:45. **Bukatu:** 00:20:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

<p>Altzako eskolako atsedenaldiak. Orduategia. Umetako jolasak. Herreran ez zegoen frontoirik, baina Loiolako La Sallen bai. Futbolean egiten zuten, pilotan aritzeko asko zirelako. Lehengo baloiak nolakoak ziren, askotan paperarekin eginak. Realean erabiltzen zituztenak ere ez ziren oraingoak bezalakoak.</p>

Transkripzioa

- Ta Altzako eskolan zenbiltzanean, deskantsua ere izango zan.
- Bueno, bai.
- Jolaserako garaia edo.
- Bai, bai, orduerdi bat eo izaten zan. Ordu laurden bat eo ordu erdiya. Goizian ta atsaldian izaten zan. Goizian bat eta geo atsaldian bestia, gaiñea. Beatzitatik hamabitara eo holakon bat; ta geo ordu bi t´erdiak o holakon bat bost eta erdiak arte. Klaro, izaten zan ordu erdi bat o gutxiyo ta han plazan ibiltzen giñan. Geo colegio La Sallen´e berdiña. Hortarako berdiña.

- Ta zuen jolasak, lehen esan dezu...

- Beti bezela futbolian o pelotan. Hemen, Herreran, ez zeon frontoirik, baiño zean bai, La Sallen, Loiolan bai. Baiño gehiena, nik uste det, gehien-gehienak... Gaiñera, frontoi bat ez liteke... ezin leizke pelotan jolastu, zeatik zenbat gea kalse bakoitzian? 40? Ordun izango zian 40. Ta kanpoa juten giñan batian 100. Frontoian ezin leizke pelotaa jun. Pelotan jolasteko 4 izan bihar dute; 4 o 6 o 8, baiño gehio ezin leizke. Ordun, futbolian.

- Ta lehengo pelotak nolakuak zian?

- Bueno, orduko...

- Baloiak.

- A! Baloiak esaten dezu /esatezu/? Buo, jesuuss! Egurrezkuak iya izaten zian. Ez zeon. Gomazkuak azaldu zian, baiño aurretik...! Zea, paperakin in ta, zea, lotu ta. Bai, bai.

- Zuek indakuak?

- Askotan bai. Ordun ez zeon. Gero gomazkuak azaldu zian ta gero ya zeakuak, normalak, oaingo normalak. Aunke oso diferentiak zian. Bai geo... Nik uste det, nik ya futbola bukatu nunian, ba, azaldu zian baloi onak, baiño gure baloiak ibiltzen zian... Ya Errealilan ibiltzen [genunak] bueno, pisatzen zuten! Ta geo hemen beti euriya ai da ta lurra... hartzen zuten piso bat! Bueno! Baiño, bueno, halaxe. Oan ikusten dezu ume batzuk ta denetatik [dakazkite]. Guek ez genun ezer; baloi hua, pelota eta besteik [ez].

8. Alpargatak eskuan hartuta; monagilo lanetan

- **Erref:** DON-140/013
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:20:17. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Herreratik Altzarako bidean, alpargatak eskuan eramaten zituen euria ari zuenean. Egurrezko botak, iltzeekin; arinak ziren. Arropa. Bata erabiltzen zuten umetan. Igandetan diferente. Monagiloa (eliz-mutila) izan zen Altzan. 07:30erako joaten zen elizara, eta handik eskolara. Apaizaren otoitzak, latinez.</p>

Transkripzioa

- Oiñetakoak ere ez ziran izango...

- Bueno, ni gogoratzen naiz oiñetakuak, hemendik, Herreratik jun Altzara euriya iten bazun, alpargatakin, alpargatak [hartu], kendu, hemen jarri ta taka-taka-taka. Zeatik alpargatak bustitzen bazian, agur. Gero alpargata frantsesak azaldu zian ta ya goma bazakaten. Baiño bestela, gure alpargatak! Onbre, ni botakin ibili izandu naiz. Gogoratzen naiz, beira. Egurrezkuakin. Planta guziya egrrezkua. Nola eamaten duten oan andriak, dana planta guziya egurrezkua.

- Eta iltzeekin josita?

- Zerekin ba? Barruko lur zea iltzeakin, bai, bai, txiki-txiki batzuk. Baiño ez zun pesatzen asko botak egurrezkuak. Ez, gogoratzen naiz. Baiño esan dizuten bezela, lehen alpargatakin majiña bat bider euriya hasi [...],

hemen beti euriya iten du /iteu/, hartu hemen lepo [zaharrera] ta benga, hankutsik.

- Erropa ere...
- Buo! Erropa're asko kanbiatu da. Ordun erropak'e ordun're, ba, zeak, zeakin, gaiñea, txikitan zeakin juten... batak, zea. Oaindikan'e ibiltzen dia / ibeltzeia/ txikiyak. Baiña orduko batak zian, bueno, benga, batakin dana tapatu ta benga, aurea.
- Eta elizara juateko, hori bai, dotore. Ala beste...
- Bueno, igandia. Bai, igandian beti diferentia. Igandea, bai. Zeatik ni monagillo izandu nitzan Altzan. Eta, bueno, jun bihar nun egunero-egunero, zeatik amona han bizi zan ta "Iñaki, zeara jun bihar dezu, elizara". Hasi giñan han eta egondu nitzan, nik ez dakit, 4 o 5 urte monagillo ta egunero-egunero zazpi terdietako mezetaa. Oseake... Eta neguan jun in bihar da, e! Zazpi terdietako. Ta geo eskolaa. Bueno, hua're pasa genun.
- Eta monagilloan lana zein izaten da?
- Oain ez dao monagilloik!
- Zure garaian zein zan zure lana?
- Elizaa. Meza bat eta apaizakin meza.
- Apaizari laguntzia?
- Horixe. Bat o bi meza.
- Ta kanpaia jotzia ta...
- Kanpaia. Ordun kanpanak. Oain ez da jotzen; ordun bai. Ordun ikasi bihar zen. Ta, gaiñera, latinez dena: "Ad Deum qui laetificat iuventute mea (iuventutem meam)" haste zan zeak, hua. Ta gu: "Quia tu es meus (Deus), fortitudo mea". Bale.

9. Apaizarekin gerezi bila, Akular baserrira

- **Erref:** DON-140/015
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:24:31. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Eliz mutila zenean Akular baserrira joaten zen apaizarekin (Felix Amianorekin) gerezi bila, baina ez zion alerik ematen. Dotrina eta Jaunartzeak. Dotrina ere erdaraz ikasi zuen. Batzuetan euskaraz zen meza nagusia, baina gutxitan. Etxean bai, beti euskaraz; bestela, kaskarrekoa zuten.</p>

Transkripzioa

- Ta harekin juten nitzan, monagillo nitzala, basarri bat dago Altzan, Akular. Eta [...] Akular, Anjel, oso gizon ona. Eta harek: "Etorri al zeazte?", "Bai". Apaiza juten zan sotana haundiyakin. Zinturoiya hartzen zun, hola, hemen, behian. Kolkotaa hasi zeak, [gindak] o zeak. Uooo! Guk goitik tik-tak, ta berak behetik. Bera're iyotzen zan batzutan. Ta ez zian ematen ezer. Nik, bueno, han jaten nunakin... Bueno, han jaten nun! Bueno.
- Eta dana apaizandako?
- Bai, dana beretzako. Dana beretzako. [...]

- Dotriña berak erakusten zun?

- Bai. Bai, bai. Nik dotriña [...]. Ordun komuniyua 7 urtekin iten zan. Ta geo bestia 9 o 10 urtekin, bigarrena. Zuk ez dezu aitu´re [ein]. 6 urtekin iten zan zean, bai, beakin, baiño ez... bi eo hiru klase besteik ez, o egunetan o. Eta bigarren komuniyua, pues, hillebete t´erdi holakon bat joten giñan. [...] gogoratzen naiz ordun, zenbat izango giñan Altzan ordun? Mutillak 10 o 11 o 12. Eta gero beste aldetikan neskak ere beste 8-10 o, komuniyua iteko. Eta iten genun komuniyua, bueno, danak batian.

- Euskeraz ikasi zenun dotriña?

- Ez.

- Dana erderaz?

- Dana erderaz. Ordun euskeraz... etxian.

- `Aita guria´ere bai?

- Etxian bai. Bueno. Meza, meza´re bai, meza nagusiya nik uste det euskeraz iten zula batzutan. Batzutan. Baiña ez gehiyenetan, e! Baiña etxian bai. Etxian, bestela, koskorroia.

- A bai?

- Bai. Hizketan hasten bagiñan erderaz iten, atzetik osaba etortzen zan —o baita, batzutan aita ta beste batzutan osaba— kaska! “Ze? Ze ai zeazte?”. Hala izaten zan. Horreatik dakiu. Bueno, “dakiu”... ahal dana. Bestela galdu ingo zan.

10. Euskara kalean galarazia

- **Erref:** DON-140/016
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:29:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Kalean euskara gutxi erabiltzen zen Herreran, Altzan asko. Soldaduskara joan zirenean, hogeit bat baziren erdaraz ez zekitenak. Euskara galarazia ere egon zen: izebari ilea moztu zioten, euskaraz egiten zuelako.</p>

Transkripzioa

-Kalian baiña, euskeraz...

-Kalian Altzan iten zan, kalia iten zan, baiño [...] oso gutxi, bueno oso gutxi ez, iten zan baiño, gutxiyo. Altzakuak danak baserritarak zian, baserritarak danak euskeraz iten zuten. Ni goatzen naiz, soldauska jun, eta hemendik jun giñan, Getafea Madrida, ba ehun o holakon bat, eta igual izango ziran, ordun [...] hogeit o holakon bat, ez zakitenak erderaz, ez zakitenak eh, ta ala Madrida gurekin: “Ze esaten du honek?” eta, benga, bai bai. Ni goatzen naiz. Nik denbo gutxi in nun Madriden baiño, hemengo jendia asko jun giñan.

-Ta galarazi egin zuten, euskeraz hitz eitia?

-Bai bai bai bai. Lehen aitu gea hortan, eta ni goatzen naiz, izeba bat: “Ze pasa da?”. Ta: “Beira ze in nauten”. A rape, illia moztu, euskeraz iten zulako, o aitu in ziyon, norbaitek aitu ziyon o holakon bat eta, benga! Guri ez guri, txikiyak giñan, umiak giñan ta...

-Eta hori izeba hori, zer zan, donostiarra?

-Bai bai, Donostikua.

-Donostikua, hori ze pasa zitzaion, Donostian zentruan, ala nun bizi zan?

-Donostin, ez ez hua ez zan bizi, Altzan bizi zan, Altzan, Altzan bizi zan, bai. Baiña bueno. Eta, [...] ona ez gogoratzia iya. Hoi gelditzen zaizu barrenen eta, ze pasa da ta: "Beira nola utzi diyoten, euskeraz iteagatik". Bueno.

11. Errazionamendu bila dendetara

- **Erref:** DON-140/019
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:31:11. **Bukatu:** 00:34:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Altzan ez zegoen dendarik. Errazionamendu bila bi dendatara joaten zen, Herrerara. Tabakoa. Arraina eta egurra ere berak eramaten zituzten etxera. Martuteneraino joaten ziren errotara, artoarekin, taloak egiteko.

12. Amona, beti beltzez

- **Erref:** DON-140/021
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:34:31. **Bukatu:** 00:35:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Bere amona nola janzten zen. Orain denek neskak ematen dute. Amonak egunero goizean mahaspasak ematen zizkion.

13. Bizikletak, autoak eta gidabaimena

- **Erref:** DON-140/022
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:35:36. **Bukatu:** 00:38:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Sagar arbolak zituzten Altzan, eta bizikletan ibiltzen ziren han. Mutikotan ez zuten bizikletarik. Bideak nolakoak ziren. Osabak bazuen automobila. Gidabaimena atera aurretik hiru-lau urtean gidatu zuen.

14. Etxea beti beteta, igandetan; Roman Irigoien

- **Erref:** DON-140/024
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:41:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikuak

Laburpena:

Gutxi zuten automobila. Donostiako osabak zuen, baina igandero joaten zen Altzara. Asko elkartzen ziren etxean, meriendatzeko. Izebak Martilungoak ziren. Roman Irigoien medikua ere han izaten zen, eta euskaraz irakurtzen zien.

Transkripzioa

- Garai batian kotxe gutxi egoten zan?
- Oso gutxi, bai.
- Hemen Altzan zure osabak, eta gero...
- Oso gutxi, ez dakit gehiyo zian, ez dakit. Bueno, Donostiko, Altzako Altzako osabak ez zekan zeza kotxia, Donostikuak zakan.
- A! Donostikuak?
- Bai, baiño hau etortzen zan, iten zuten igandero-igandero arratsaldian anai artian ta koiñauak eta hoiyek gure etxian meriendatu, beti-beti. Baiño urtian igandero. Ta festa zanian'de Altzara etortzen zian; ta etortzen zian bostetan o seiyyetan, meriendatu, bapo meriendatu ta beatzitako o hamarretako bakoitza bere etxea. Bai, bai.
- Familia elkartuta.
- Bai, zeatik gaiñea, famili asko zan, zeatik nere izebak: bi anai ezkondu zian bi arrebakin, eta bestia... Haiyek zian, andriak zian Martiñekuak. Ta martiñekuak zian ba nik uste det hamabi o holakon bat. "O sea que" batzuk ta bestiak, beste koiñata ta beste koiñata eta beste... Juntatzen zian gure etxian, juntatzen zian seguru... Eta medikua, Altzako medikua, bai, Juan Mari gaitan, harek'e harek'e igandero etortzen zan. Eta beti ezautzen zuten gure etxian, ta beteta. Gaiñea esango dizut gauza bat, zeatik, aita, Juan Marin aita medikua zan berez, berez Oiyartzungua ta Altzan gelditu zan azkenengo urtera arte; eta etortzen zan gure etxea nere osabakin, igandero-igandero meza nagusira, ta meza nagusia bukatu ta gure etxea etortzen zan. Liburu bat hartu, euskerazko liburu bat gehiyenetan eta letu. Eta nere osaba hemen aitzen, eta bestia letzen. Baiño urte askotan, Juan Marin aita, don Roman, oso ezaguna da, bai.

15. Umetako gaiztakeriak

- **Erref:** DON-140/025
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:41:01. **Bukatu:** 00:43:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetan borroka asko egiten zuten. Sagar lekuak asko zeuden, eta hartu egiten zituzten. Melokotoi bila ere bai. Baserri batzuetan, eskopetarekin

prestatuta zeuden; gatza jaurtitzen zuten. Zilargilene baserrian ur salto bat zegoen, eta hara joaten ziren. Ezkailuak harrapatzen.

16. Txoriak harrapatzen, kanposantuan

- **Erref:** DON-140/026
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:43:52. **Bukatu:** 00:46:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Natura » Fauna

Laburpena:

Txori habia bila ibiltzen ziren. Tarina, berdeloia, karnaba... erreklamoan ibiltzen ziren. Tiragomarekin eta balinezko eskopetarekin ere bai. Kanposantuan ere harrapatzen zituen.

17. Heriotza: gorpua etxetik elizara

- **Erref:** DON-140/027
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:46:24. **Bukatu:** 00:49:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>Heriotza: gorpua etxean izaten zen lehen. Gaubeila egiten zuten; izeba hil zenean, bera geratu zen. Eliz-mutil ibili zenean, apaizarekin joaten zen gorputz bila. Behin, Martutenera joan ziren, Ubara, eta hildakoak guraizeak zituen esku artean. Elizako aulkien aurrean argia jartzen zuten.</p>

18. Elizaren jarrera euskararekin

- **Erref:** DON-140/028
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:49:59. **Bukatu:** 00:51:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Meza latinez zen, eta ez zuten ezer entenditzen. Elizaren indarra. Apaiz askok sermoia euskaraz egiten zuten, eta horri esker salbatu ei zen. Egunkarietan, Basarrik bakarrik idazten zuen euskaraz.</p>

Transkripzioa

- Eta meza latinez?

- Meza latinez, bai, bai, bai.

- Ta zuek ez zenuten entendituko?

- Ezer ez! Aditu, aditu besteik ez. Ta ni lehen meza hasi zian erderaz eta euskeraz... baiño oso berandu e? Oso berandu, bueno berandu, ni monegillo nintzala ez. Ordun latinez dena, latinez

- Ta elizak indar haundiya zeukan?

- Hemen bai, Jesus! Nik uste det gehiyegi. Bai, bai, nik apaiza asko ezautu nuen, oso onak, lehen esan dizutena, bueno, hua andria bezela zan, baizan. Baiño bai. Baiño nik uste det euskera gelditu dala asko apaizengatik. Apaizek ematen zuten pulpituana ta euskeraz iten zuten, ordun euskeraz, gehiyenak euskeraz iten zuten, zea, sermoiya. Ta nik uste det horrek eukitzen zula ba gure euskera. Zea, harek eukitzen zuten, zeatik periodikotan ta ez zeon euskerik, bakarrik iten zun pixkat, bueno, iten zun bai, Baxarrik. Baxarri badakizu bertsolaiya, Zarauzko bertsolaiya? Ba harek iten zun, bestela ez zeon iñor periodikotan, ni goatzen naizela e? Hor euskeraz periodikotan ez, ez, ezer ez.

19. Dantzak eta nobio garaiak

- **Erref:** DON-140/030
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:51:47. **Bukatu:** 00:55:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Dena bekatua zen. Dantza lotua ez, libre zen. Festak. Udan Hernanira eta neguan Erreteriarra. Neskek kalabazak ere ematen zituzten. Batzuetan etxera laguntzen zieten. Erreteriarako Turin taldea eta Herrerako Club Deportivo. Nobiotan bost urte. Likore lantegia zuten, Destileria Gipuzcoana.

20. Lehenengo lana, bidaia agentzia batean

- **Erref:** DON-140/032
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:55:32. **Bukatu:** 00:58:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

Laburpena:

Donostian Artzain Onean egoten zen lehengusuekin. Oporrak ekainetik urria bitarte izaten ziren, luzeak. Lanean 18-19 urterekin hasi zen, Sireica bidaia agentzia batean. Venezuelara eta Argentinara joaten zen jendea, lan bila.

Nagusia jeltzalea zen, eta bila joan zitzaion Polizia. Joxeba Elozegi. Gero likore lantegian hasi zen.

21. Gipuzkoana Destileria

- **Erref:** DON-140/033
- **Iraupena:** 0:04:10. **Hasi:** 00:58:45. **Bukatu:** 01:02:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Edari-ekoizleak

Laburpena:

Gipuzkoana destileria. Etxebarria anisa egiten zuten. Rona, bermuta, moskatela... Imitazioak egiten zituzten. Ardo biltegieta banatzen zituzten, kamionetarekin. Pontxea eta pipermina Ondarroara. Itsasontzietan ere ez zen rona falta.

22. Likore lantegien gainbehera

- **Erref:** DON-140/035
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:03:04. **Bukatu:** 01:04:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Edari-ekoizleak
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Likore lantegi asko zeuden lehen, baina baldintza asko jartzen hasi ziren. Intxaurrondoko destilariak semeak eta biek elkarrekin jokatu zuten Realean.

Transkripzioa

- Hasi zian, este, galderakin, "o sea" hasi zian ya, bueno, "hemen ezin leizke garrafoiyetan saltu, saldu bihar da boteilletan". Ta boteilletan hortako zea bat zeon, zea, etxe haundiyak. Gu boteillakin hasi giñan eta geo boteillakin saltzeko, hamar litro saltzeko, behar zan... Eta polliki-polliki nik uste det ez dala gelditzen. Hemen asko zian, eta ez dakit bat gelditzen dan. Bueno, gelditu oain iten da, gelditu ez, bazan... Ordun fabrika asko zeon e? Zea, likorienak. Hemen zeon Maribi Irisarre, adituko zenun, oain Billabonan dago. Ta gero Pasaian zegoen [...] Beltran, "licorera vasca", Benedictine... Likorek iten zutenak, "o sea que", Espaiña guztirako. Pasaian hemen bazeuden bost o sei, bai, bai.

- Eta hemen ez zeon Intxaurrondon beste bat?

- Bai, "[...] y Pedraglio", Intxaurrondon, bai. Harek izaten zun, bai. Oso lagunak giñen, bere semiak ta nik jolastu genun Errealen, zea, urte batzutanuntu biyok: Gorka Nos ta nik. Joakin.

23. Festetako kontuak; Altzako harri apustua

- **Erref:** DON-140/037
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 01:04:38. **Bukatu:** 01:08:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Etiketetik ihes egin, eta Pasaia joan zen festetara. Altxako festak. Ezkonduz gero, festei agur. Altxako eta Herrerako festak antolatzen ibili izan da urte askoan. Pilotariak, aizkolariak... harri apustuak. Musikariak, Pasaia-koak. Txistulariak, igandero.

24. Bertsolariak eta sagardotegiak

- **Erref:** DON-140/038
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 01:08:26. **Bukatu:** 01:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Bertsolariak, festetan eta sagardotegi giroan. Sagardotegiak asko ziren. Basarri, Azpillaga, Lazkao Txiki... Txirrita izan zen oso famatua, Altxan bizi zelako. Gizonek hiru egun egiten zituzten sagardotegitik atera gabe. Toka.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-11-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com